

Guardia Zibilaren kuartel berri bat eraikiko dute Elizondon

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 04/04/2025

Azken urte hauetan, Guardia Zibilaren presentzia indartzen joan da eskualdean, izan ere, 2017ko abenduan 1.487 Guardia Zibil zeuden Nafarroan, eta gaur egun 1.529 dira, %2,8 gehiago.

Orain dela aste batzuk, Espainiako Barne ministro Fernando Grande-Marlaskak jakinarazi zuen bere ministerioak Nafarroan zer egin asmo duen, eta, besteak beste, adierazi zuen Elizondon Guardia Zibilaren beste kuartel bat eraikitzeke asmoa dutela. Ministroak adierazi zuenez, Espainiako aurrekontuak onartzen direnean, azpiegitura plan bat eramango dute Ministroen Kontseilura, eta han jasotako proiektuetako bat da kuartel hori. Aurreratu zuen lan horretarako 8 milioi baino gehiagoko inbertsio bat egingo dutela.

Gaur egun, Nafarroak estatuko polizia ratorik handiena du; mila biztanleko zazpi polizia, hau da, Europako batezbertzeakoaren bikoitza eta Baztanen dagoeneko hiru kuartel daude, proiektu honekin laugarrena sortuko litzateke. Duela hilabete pasa, Foro SER Navarra topaketan parte hartu zuen Fernando Grande-Marlaska Espainiako Barne ministroak eta adierazi zuen "inoiz baino beharrezkoagoa" dela Guardia Zibilaren presentzia indartzea. Horrela egin dute azken urte hauetan; izan ere, 2017ko abenduan 1.487 Guardia Zibil zeuden Nafarroan, eta gaur egun 1.529 dira, % 2,8 gehiago. Bestetik, ministroak azaldu zuenez, "inoiz ez da egon eta inoiz ez da egongo Polizia Nazionalea eta Guardia Zibila Nafarroatik ateratzeko estrategiarik".

<https://eh.lahaine.org/guardia-zibilaren-kuartel-bat-eraikiko>